



2017ko irailaren 11tik 15era, Komikigunean
Galtzagorri Elkarte
galtzagorri@galtzagorri.eus
943471487

MARRAZIOAK IX

“KOSK EGITEKO, BOTATZEKO, LARDASKATZEKO ETA ARE IRAKURRIAK IZATEKO MODUKO LIBURUAK EGIN”

HAUR TXIKIENTZAKO LIBURUAK SORTZEKO TAILERRA

ELENA ODRIOZOLA eta GUSTAVO PUERTA

ZER:

MarraziOaK tailerraren ekitaldi berri honetan, haur txikientzako liburuez arituko gara. Bere konplexutasunagatik, zabaltzen dituen esperimenez akerengatik eta dakartzan komunikazio eskakizunengatik Haur Literaturaren baitan nabarmentzen den alorren bat baldin bada, hau, ez bairik gabe, haur txikientzako liburuena da.

Liburu hauek ordea, ez dute liburu-albumek izaten duten ospea. Literaturatik baino jostailuetatik gertuago dagoen merkantziatzat hartzen baitira. Aurreiritzi hori oso errotua dago, eta merkaturan nagusi den eskaintza kaskarrak ez du gehiegi laguntzen.

Baina, posible al da haur txikientzako beste era bateko liburuak sortzea?
Zertarako egin liburuak oraindik irakurtzen ez dakitenentzat?

METODOLOGIA:

Aipatutako guztia planteatu, aztertu eta lantzeko haur txikientzako liburu tailer bat egingo dugu aurten, jakitun baikara genero hau gure artean ia ezezaguna dela eta oso gutxi garatu dela. Honakoak landuko dira:

1. Liburuaren azterketa euskarri material gisa.
2. Oraindik hizkuntzaz jabetzen ari diren haurrekin komunikatzeak ze erlijentzia maila dakarren.
3. Sortzailearen espresio-beharrak.

Ikastaroan zehar parte hartzaileek behar dituzten ezagupen guztiak jasoko dituzte euren proiektuak abiatu ahal izateko.

IRAKASLEAK:

Elena Odriozola
Gustavo Puerta Leisse

NOIZ ETA NON:

2017ko irailaren 11tik 15era, egun osoz, Komikigunean (Errege-Erregina Katolikoan kalea, 16.20.006, Donostia)

Goizeko 10:00etatik 14:00etara (ordu erdiko atsedenaekin).

Arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara.

Asistentzia derrigorrezkoa da: parte hartzaileek tailerraren saio guztietara etortzeko gai izan eta horretarako konpromisoa hartu behar dute.

NORENTZAT:

Gehienez 12 irudigilek hartuko dute parte.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Parte hartzaileek Euskal Herrikoak izan behar dute.
- Galtzagorri Elkarteko bazkide izatea baloratuko da.
- Euskadiko Ilustratzaileen Elkarteko bazkide izatea ere kontuan izango da.
- Parte hartzaileek ez dute zertan lan argitaraturik izan behar.

ESKAINZA:

Topaketa hauetan formazioa doan eskainiko zaie irakasleek aukeratzen dituzten 12 lagunei. Guztira, 35 orduko tailer praktikoa egiteko beka bana eskuratuko dute.

IZEN EMATEA:

Ilustratzaile bakoitzak ume txiki baten egunerokotasuna erakusten duen gutxienez lau ilustrazioz osatutako sekuentzia bat marraztu eta bidali beharko du.

Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko du:

Curriculum

NANren kopia bat

Posta elektronikoaren helbidea

Telefono zenbakia

Dokumentazioa wetransfer bidez bidali beharko du administrazioa@galtzagorri.eus –era.

EPEAK:

Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2017ko uztailaren 7a** izango da.

Aukeratutakoei 2017ko uztailaren 28rako erantzun zuzena zaie.

ANTOLATZAILEAK:

Galtzagorri Elkartea
Gipuzkoako Foru Aldundia
Komikigunea

INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK:

943471487

www.galtzagorri.eus

galtzagorri@galtzagorri.eus